BIZKAIA B•2

# Urdaibai



**Urdaibaiko haranak eta estuarioak** edertasun paregabeko eta balio izugarrizko naturagunea osatzen dute, bertako natura eta giza elementu eta ekosistemen dibertsitateagatik eta originaltasunagatik. Ez da eremu basati bat, aitzitik, gizakiaren okupazioak berak lagundu du, neurri batean, bertako balio naturalak kontserbatzen. Urdaibaiko estuarioa Euskal Herriko gune heze garrantzitsuenatzat hartzen da, Europako uretako hegaztien migrazioan atsedenleku garrantzisua izateagatik eta padurari loturiko inguruneen dibertsitate ekologikoarengatik.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

- Biosfera Erreserba (1984) // RAMSAR (1993) // HBGB // IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

## LANERAKO GAIAK

- Paduretako ekologia eta eraketa.
- Karst–a: higaduraren ondorioz sortutako sistema geologikoa.
- Hegazti–fauna: uretako hegaztiak.
- Kantauriko artadietako flora eta fauna.
- Atlantikoko hariztia. Biodibertsitate handiko basoa.
- Atlantikoko landazabala: baserria eta bere ingurua.
- Kostaldeko landazabala: Akorda.
- Dunak: hareatzeetako birsortze–prozesu ekologikoa.
- Ibaiko ekosistema.
- Txatxarramendiko parke botanikoa.
- Urdaibaiko itsasertzeko paisaiaren interpretazioa.
- Dantzalekua. Akelarreen ingurua.
- Erabilera tradizionalak: burdinolak, errotak, arrantza, ostra–haztegiak, ontziolak.
- Artea naturan: Ibarrolaren baso animatua.
- Montalbango dorre–etxea. Barneko paisaiaren interpretazioa.
- Erreserbaren kudeaketa: patronatua, espazio babestu izendatzearen abantailak eta eragozpenak.
- Jar gaitezen martxan: inguruneko boluntario–lana.